

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

108/2015 Foru Agindua, martxoaren 25ekoa, behin betiko onartzen duena Lantziegoko hiri antolamendurako plan orokorra aldatzeko espediente, Benasperiko E.22-01 azpizona publikoaren ingurukoa

I. AURREKARIAK

Bakarra. Abenduaren 9ko 531/2014 Foru Aginduaren bitartez, erabaki zen Lantziegoko udalerriko hiri antolamendurako plan orokorra aldatzeko espedientearen behin betiko onarpena etetea. Aldaketa honetan datza: komunikazio azpizona publikoa izatetik espazio libreetarako azpizona publikoa izatera pasatzen den 190,05 m²ko jabari publikoko zona bat birkalifikatzean, hain zuzen ere Benasperiko e.22-01 azpizona, f.14-05 azpizona bihurtzen dena.

II. OINARRIAK

Lehenengoa. Aurretik aipatutako aldakuntzaren behin betiko onarpena etetea erabakitzeko arrazoiak hauxe izan zen: Administrazioarekiko Auzietarako Gasteizko 3. Epaitegiaren 106/2014 autoa zegoela, irailaren 2koa, epai bat betearaziz aldaketa puntualaren baliogabetasuna adierazi zuena.

Bigarrena. Esandako autoaren kontra, apelazio errekurtsua aurkeztu zuen Lantziegoko Udalak EAEko Justizia Auzitegi Nagusian, eta 2014ko abenduaren 22an hori baiesten duen epaia eman da, bere bigarren oinarrian honako hau adierazten duena:

“Epaitzak udala kondenatzen du hirigintzako legezkotasuna berrezartzera lurra berreskuratuz.

Hortaz, udalak jabetza berreskuratu behar zuen, baina inolako arazorik gabe dagokion hirigintza aldaketa sustatu zezakeen, eta horixe da egin duena. Eta honek ez dakar berekin epaitza urratzerik, zeren eta horrek ez zuen kondenatu esandako arauketa mantentzera, ez eta haren edukia hala edo hola izatera, baina, hain zuzen ere, aitortu egiten zuen planteatutako egoera legezkotu zitekeela, beste eskakizun batzuen artean, planeamenduaren aldaketaren bidez.

Horregatik guztiagatik, udalaren ekintzek ez dute epaitza urratu eta apelazio errekurtsua baietsi egin behar da.”

Hirugarrena. Aldakuntza bidezkoturik dago planeamendua tokiko errealitate fisikora moldatu beharregatik, zolatu gabeko hondar-berdegune bat baita, ibilgailuak hartatik pasatzea ezinezkoa izanik. Horregatik, espazio libre kalifikazioaz bermatu egiten da 190,05 m²ak zuzkidura publiko izatea.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onartzea Lantziegoko hiri antolamendurako plan orokorra aldatzeko espediente, Benasperiko e.22-01 azpizona publikoaren ingurukoa.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko

Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 25a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
MARTA RUIZ CERRILLO